

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZKOITIKO UDALA

*Iragarkia*

Espedientean jasotzen diren azterketa eta jarduketa ego-kiak egin ondoren, Udalbatzak 2017ko irailaren 27an egindako batzarraldian 2018rako Ordenantza Fiskalen aldaketa hasieraz onartzea erabaki zuen, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Hartu den erabakiaren eta horretarako ireki den espedien-tearen berri ematen zaio jendeari, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzekoak, 16.1 arti-kuluan xedatutakoaren arabera, iragarkiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, udaletxeko ediktu taulan eta Gipuzkoan hedapen handienetako egunkari batean argitaratuz, artikulua hartako 2 zenbakiak exijitutakoari jarraiki, eta guzti hori honako erregelaren arabera:

a) *Agerian dagoen tokia:* Azkoitiko Udaletxeko Kontuhar-tzailletzan.

b) *Aztertu eta, hala dagokionean, erreklamazioak egiteko epea:* 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta ondoko lanegunetik hasita, bulego orduetan.

c) *Nortzuk duten erreklamatzeko bidezkotasuna:* uztaila-ren 5eko 11/1989 Foru Arauak 17. artikuluan zerrendatutakoek.

d) *Aurkezteko lekua:* Udaletxeko Sarrera Erregistro Oroko-rra. Halaber, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

e) *Zer organori jarri errekurtsua:* Udal Batzarra.

Haren berri emateko arauzko epea inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe bukatu ondoren, hartu diren era-bakiak behin-betirako onartutzat joko dira, erabaki berririk gabe.

Azkoitia, 2017ko irailaren 28a.—Alkatea. (6687)

AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Anuncio*

Tras los estudios y actuaciones pertinentes que obran en el expediente de su razón, el Pleno Municipal, en sesión celebrada el día 27 de septiembre de 2017, acordó aprobar provisional-mente con efectos de 1 de enero de 2018, la modificación de las Ordenanzas Fiscales para 2018.

El acuerdo adoptado, y el expediente al efecto instruido, se someten a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Regu-ladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publi-cación de anuncios en este medio oficial, en el Tablón de Edic-tos de la Casa Consistorial y también en un periódico de los de mayor difusión de Gipuzkoa según exige el n.º 2 del citado artí-culo, todo ello conforme a las siguientes reglas:

a) *Lugar donde se hallan de manifiesto:* En el departa-mento de Intervención del Ayuntamiento de Azkoitia.

b) *Plazo para examinarlos y en su caso para formular las reclamaciones:* 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, en horario de oficina.

c) *Legitimados para reclamar:* Los que relaciona el art. 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) *Lugar de presentación:* En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento. También podrán presentarse en los lugares que señala el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Admi-nistraciones Públicas.

e) *Órgano ante el que se recurre:* Ayuntamiento Pleno.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta informa-ción sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrán por definitivos los acuerdos adoptados, sin necesidad de nuevos acuerdos.

Azkoitia, a 28 de septiembre de 2017.—El alcalde. (6687)